


Gipuzkoako Bizikleta Bideen Lurraldearen Arloko Plana

BEHIN BETIKO ONARPENA

D Dokumentua: INGURUMEN IRAUNKORTASUNARI BURUZKO TXOSTENA

Ingurumen Baldintzatzaileen Planoak



2013ko EKAINA



GIPUZKOAKO BIZIKLETA BIDEEN LURRALDEAREN ARLOKO PLANEKO DOKUMENTUAK

Dokumentuak	Izena
A DOKUMENTUA	MEMORIA
B DOKUMENTUA	ARAUDIA
C DOKUMENTUA	ANTOLAMENDU PLANOAK
D DOKUMENTUA	INGURUMEN IRAUNKORTASUNARI BURUZKO TXOSTENA
E DOKUMENTUA	PLANGINTZAREN GAINEKO ERAGINAK
F DOKUMENTUA	HERRITARREN PARTE HARTZEA
G DOKUMENTUA	LABURPENA



BEHIN BETIKO ONARPENA

D dokumentua: INGURUMEN IRAUNKORTASUNARI BURUZKO TXOSTENA
Ingurumen baldintzatzaileen planoak

D DOKUMENTUA. INGURUMEN BALDINTZATZAIILEEN PLANOAK

Ingurumen baldintzatzaileen planoen zerrenda (D dokumentua. Ingurumen Iraunkortasunari buruzko Txostena)			
Zk.:	Izena	Eskala	Dokumentua
D.01 planoak	I-1 Donostia - Irun ibilbidearen trazaduraren plano nagusia	1:50.000	D. IIT
D.01 planoak (9)	I-1 Donostia - Irun ibilbideko ingurumen baldintzatzaileak	1:10.000	D. IIT
D.02 planoak	I-2 Donostia - Mutriku ibilbidearen trazaduraren plano nagusia	1:100.000	D. IIT
D.02 planoak (15)	I-2 Donostia - Mutriku ibilbideko ingurumen baldintzatzaileak	1:10.000	D. IIT
D.03a planoak	I-3 Donostia - Beasain ibilbidearen trazaduraren plano nagusia	1:100.000	D. IIT
D.03b planoak	I-3 Donostia - Beasain ibilbidearen trazaduraren plano nagusia	1:100.000	D. IIT
D.03 planoak (23)	I-3 Donostia - Beasain ibilbideko ingurumen baldintzatzaileak	1:10.000	D. IIT
D.04 planoak	I-4 Debarroa ibilbidearen trazaduraren plano nagusia	1:100.000	D. IIT
D.04 planoak (19)	I-4 Debarroa ibilbideko ingurumen baldintzatzaileak	1:10.000	D. IIT
D.05 planoak	I-5 Urola bailara ibilbidearen trazaduraren plano nagusia	1:100.000	D. IIT
D.05 planoak (12)	I-5 Urola bailara ibilbideko ingurumen baldintzatzaileak	1:10.000	D. IIT
D.06 planoak	I-6 Bergara - Beasain ibilbidearen trazaduraren plano nagusia	1:50.000	D. IIT
D.06 planoak (7)	I-6 Bergara - Beasain ibilbideko ingurumen baldintzatzaileak	1:10.000	D. IIT
D.07 planoak	I-7 Bidaso bailara ibilbidearen trazaduraren plano nagusia	1:50.000	D. IIT
D.07 planoak (3)	I-7 Bidaso bailara ibilbideko ingurumen baldintzatzaileak	1:10.000	D. IIT
D.08 planoak	I-8 Leitzaran bailara ibilbidearen trazaduraren plano nagusia	1:75.000	D. IIT
D.08 planoak (6)	I-8 Leitzaran bailara ibilbideko ingurumen baldintzatzaileak	1:10.000	D. IIT
D.09 planoak	I-9 Ego bailara ibilbidearen trazaduraren plano nagusia	1:50.000	D. IIT
D.09 planoak (2)	I-9 Ego bailara ibilbideko ingurumen baldintzatzaileak	1:10.000	D. IIT



LANTALDEA

LANAREN ZUZENDARITZA:

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

Beatriz Marticorena San Agustín
Aitor Lecuona Alzugaray
Idoia Bastida Segues
Germán Pozas Zubizarreta
Ana Martínez de Antoñana Quintana

PROIEKTUA IDATZI DUTENAK:

Itziar Eizagirre Irureta. Mirua 21
Tomás Aranburu Calafel. Ekolur Ingurumen Aholkularitza, SLL
Nerea Egia Larrinaga. Ekolur Ingurumen Aholkularitza, SLL
Iñaki Urrizalki Oroz. Ekolur Ingurumen Aholkularitza, SLL
Uxue Sudupe Senosiain. Ekolur Ingurumen Aholkularitza, SLL

KOLABORATZAILEAK:

Ander Irazusta Aramendi. Biziker.

DELINEATZAILEA:

Eduardo Echenique Olano. Ekolur Ingurumen Aholkularitza, SLL

DISEINUA ETA MAKETAZIOA:

Estela Cuevas Diez. Ekolur Ingurumen Aholkularitza, SLL

BEHIN BETIKO ONARPENA

D dokumentua: INGURUMEN IRAUNKORTASUNARI BURUZKO TXOSTENA
Ingurumen baldintzatzaileen planoak

Ingurumen Baldintzatzaileen Planoak

Gipuzkoako Bizikleta Bideen Lurraldearen Arloko Planeko Ingurumen Iraunkortasunari buruzko Txostenak ingurumen baldintzatzaileen plano bilduma bat jasotzen du; horretan, Gipuzkoako Bizikleta Bideen Oinarrizko Sarearen trazadura kartografiatu da, 1/10.000 eskalan, Gipuzkoako Lurralde Historikoan identifikatu diren ingurumen baldintzatzaile garrantzitsuenekin batera.

Trazadura ibilbideka dago antolatuta. Ibilbide bakoitzak plano nagusi bat dauka, eskala txikiagoan, eta horretan, ortofoto baten gainean, ibilbide bakoitzaren trazadura eta dagozkion planoak identifikatzen dira.

• INGURUMEN BALDINTZATZAIILEEN PLANOEN ZENBAKIAK

Plano nagusi edo gidari horietako bakoitzari ibilbidearen zenbakia jarri zaio. Hala, adibidez D-3 planoak Oinarrizko Sareko 3. ibilbidearen plano nagusia da.

Ingurumen baldintzatzaileen planoen, hots, 1/10.000 eskalan aurkeztutako zenbakiek bi zifra dituzte. Lehenbiziko zifra ibilbideari dagokio. Bigarrena, berriz, planoari berari. Esate baterako, D-4.9 planoak 4. ibilbideko 9. planoak da.

• INGURUMEN BALDINTZATZAIILEEN PLANOETAKO IRUDI TESTUAK

Ingurumen baldintzatzaileen planoetako sinbologiak Gipuzkoako Bizikleta Bideen Oinarrizko Sareko ibilbideak irudikatzen ditu, horien gauzatze mailaren eta atxiki zaizkien administrazioaren arabera bereizirik (burutua - planifikatua, foru sarekoa - udal sarekoa).

GIPUZKOAKO BIZIKLETA BIDEEN LURRALDEAREN ARLOKO PLANA / PLAN TERRITORIAL SECTORIAL DE VÍAS CICLISTAS DE GIPUZKOA

Gipuzkoako Bizikleta Bideen Oinarrizko Foru Sarea: GBBOFS / Red Básica Foral de Vías Ciclistas de Gipuzkoa: RBFVCG

- Burututako tartekak. *Burututako Oinarrizko Foru Sarea (BOFS) / Tramos ejecutados. Red Básica Foral Existente (RBFE)*
- Burutugabeko tartekak. *Planifikatutako Oinarrizko Foru Sarea (POFS) / Tramos no ejecutados. Red Básica Foral Planificada (RBFP)*
- Aukeren azterketen zain dauden tartekak. *Planifikatutako Oinarrizko Foru Sarea (POFS) / Tramos pendientes de estudios de alternativas. Red Básica Foral Planificada (RBFP)*

Gipuzkoako Bizikleta Bideen Oinarrizko Udal Sarea: GBBOUS / Red Básica Local de Vías Ciclistas de Gipuzkoa: RBLVCG

- Burututako tartekak. *Burututako Oinarrizko Udal Sarea (BOUS) / Tramos ejecutados. Red Básica Local Existente (RBLE)*
- Burutugabeko tartekak. *Planifikatutako Oinarrizko Udal Sarea (POUS) / Tramos no ejecutados. Red Básica Local Planificada (RBLP)*

Ibilbide-tarteen hasiera eta amaiera / Inicio y final de tramo

Gipuzkoako Bizikleta Bideen Oinarrizko Foru Sarea (GBBOFS): Gipuzkoako Bizikleta Bideen Oinarrizko Sareko tartekak, foru titulartasunekoak eta hiriartekoak. Bi tarte mota bereizi dira Oinarrizko Foru Sarean:

Burututako Oinarrizko Foru Sarea (BOFS): Gipuzkoako Bizikleta Bideen Oinarrizko Sareko tartekak, foru titulartasunekoak, hiriartekoak gehienbat eta dagoeneko eginak. Halaber, kategoria honen barruan daude burutzeke dauden baina 2011. urtean Gipuzkoako Foru Aldundiaren Diputatuen Kontseiluak onartuak zituen eraikuntza proiektuei dagozkien tartekak.

Planifikatutako Oinarrizko Foru Sarea (POFS): Gipuzkoako Bizikleta Bideen Oinarrizko Sareko tartekak, foru titulartasunekoak, hiriartekoak gehienbat eta oraindik egin gabe daudenak edo eraikuntza proiektu onarturik ez dutenak.

Kategoria horretan bi tarte mota bereizi dira:

Oraindik egiteke dauden eta eraikuntza proiektua erredaktatzeko fasean trazaduran beharbada aldaketa txiki batzuk izango dituzten tartekak.

Oraindik egiteke dauden eta, zenbait faktore direla eta (topografikoak, kudeaketakoak, aukerak...) trazadurari dagokionez aukerei buruzko alde aurreko azterketa behar duten tartekak. Tarte horien trazaduraren gutxi gorabeherako kartografia egin da, gerora aldaketa handiak egitea gerta liteke eta.

Gipuzkoako Bizikleta Bideen Oinarrizko Udal Sarea (GBBOUS): Gipuzkoako Bizikleta Bideen Oinarrizko Sareko udal titulartasuneko eta hiribarneko tartekak. Tarte horiek Oinarrizko Sarearen jarraitasuna bermatzen dute.

Tarte horien trazadura gomendio gisakoa da zeharkatzen dituzten udalentsat; beraz, udalaren hirigintza kudeaketak berak eragiten dituen aldaketen mende dago. Dena dela, Oinarrizko Sarearen hiriguneetako sarrera eta irteera lekuen arteko lotura funtzionala bermatzeko eskatzen zaie udalei.

Burututako tartekak edo **Burututako Oinarrizko Udal Sarea (BOUS)**.

Oraindik egiteke dauden tartekak edo **Planifikatutako Oinarrizko Udal Sarea (POUS)**; LAP honetako antolamendu planoetako trazadura orientagarria da.

Planoetan identifikatu egin dira, halaber, ibilbide eta adarretako tarte bakoitzaren hasiera eta amaierako puntuak.

Ibilbide bakoitzean definitzen diren tarteen hasiera eta amaierako puntuak.



BEHIN BETIKO ONARPENA

D dokumentua: INGURUMEN IRAUNKORTASUNARI BURUZKO TXOSTENA
Ingurumen baldintzatzaileen planoak

Eremu hauen gainean kartografiatu dira lurralde eta ingurumen baldintzatzaile garrantzitsuenak, betiere kontuan harturik eskura dagoen informazioa eta aurkezpena begira erabiliko den eskala. Hau da, jaso diren baldintzatzaileak ez dira kasuan kasuko eremuan dauden bakarrak; horregatik, egiteko dauden tartearak eraikitzeke proiektu teknikoetako ingurumen azterketak sakondu egin behar du, eta zabaldu, baldintzatzaile horien gaineko analisía, betiere plano hauetan aurrez kartografiatuak oinarritzat hartuta.

Irudikatutako baldintzatzaileak honakoak dira:

- Lurralde baldintzatzaileak: Gipuzkoako Bizikleta Bideen Oinarritzko Sareari eragiten dioten hainbat lurralde baldintzatzaile adierazten dira, lege dokumentuek edo lurralde antolamenduaren arlokoek definitzen dituzten mugak ere jasoz; baldintzatzaile horiek honakoak dira:
 - Itsas-lehorreko jabari publikoa, eta itsasertzeko zortasun eta babes lerroa (22/1988 Legea, uztailaren 28koa, Kostalderi buruzkoa, eta 1471/1989 Errege Dekretua, abenduaren 1ekoa, legea garatzeko eta gauatzeko Erregelamendu Orokorra onartzekoa).
 - EAEko Itsasertza Babestu eta Antolatzeko Lurraldearen Arloko Planak, martxoaren 13ko 43/2007 Dekretuak behin betiko onartuak, definitzen dituen babes zorrotz bereziko zonak.
 - EAEko Hezeguneetako Lurraldearen Arloko Planak, uztailaren 27ko 164/2004 Dekretuak behin betiko onartuak, jasotzen dituen interes bereziko zonak.
 - Txingudi Inguruko Baliabide Naturalak Babesteko eta Antolatzeko Plan Bereziak antolatzen duen eremua.
- Fauna: Espezie Mehatzatuen EAEko Katalogoak arrisku handieneko kategorian (galzorian dauden espezieak) katalogatzen dituen eta Gipuzkoako Lurralde Historikoan kudeaketa plana baduten faunako espezieentzat interes berezikoak diren zonak kartografiatu dira, hala nola:
 - Hegoaldeko zuhaitz-igela (*Hyla meridionalis*) ugaltzeko guneak.
 - Bisoi europarraren (*Mustela lutreola*) interes bereziko eremuak.
 - Muturluze piriniarraren (*Galemys pyrenaicus*) interes bereziko eremuak.
- Naturguneak: Gipuzkoako Lurralde Historikoan legezko babesen bat duten naturguneak kartografiatu dira; hona hemen naturguneak eta dagozkien babes figurak:
 - Biotopo babestuak.
 - Iñurritza: 40/1997 Dekretua, otsailaren 25ekoa, Iñurritzako eremua biotopo babestu deklaratu zuena.
 - Leitzaran ibaia: 416/1995 Dekretua, irailaren 29koa, Leitzaran ibaia biotopo babestu deklaratu zuena.
 - Deba eta Zumaia arteko itsasertza: 34/2009 Dekretua, otsailaren 10ekoa, Deba eta Zumaia arteko itsasertza biotopo babestu deklaratu zuena.
 - Zuhaitz apartekoak: 265/1995 Dekretuak hainbat aparteko zuhaitz deklaratu zituen Euskal Autonomia Erkidegoan.
 - Parke naturalak.
 - Aiako Harria: 241/1995 Dekretua, apirilaren 11koa, Aiako Harriaren ingurua parke natural deklaratu zuena.
 - Aizkorri-Aratz: 76/2006 Dekretua, apirilaren 4koa, Aizkorri-Aratz parke natural deklaratu zuena.

ZEHAZPIDEAK / LEYENDA:	
INGURUMEN BALDINTZATZAILEAK / CONDICIONANTES AMBIENTALES	
Lurralde baldintzatzaileak / Condicionantes Territoriales	
	Itsas-lehorreko jabari publikoa / Dominio Público Marítimo Terrestre
	Itsas-lehorreko babeseko zorgunea / Servidumbre de Protección Marítimo-Terrestre
	Itsasertza / Ribera del mar
	Itsasertzeko LAPeko Babes Zorrotz Bereziko Guneak / Zonas Especial Protección Estricta PTS Litoral
	Hezeguneen LAPeko Interes Guneak / Zonas de Interés PTS Zonas Húmedas
	Txingudiko Baliabide Naturalak Babesteko eta Antolatzeko Plan Berezia / Plan Especial de Protección y Ordenación de los Recursos Naturales del área de Txingudi
Fauna / Fauna	
	Hegoaldeko zuhaitz-igela ugaltzeko gunea / Enclaves de reproducción de Ranita Meridional (<i>Hyla meridionalis</i>)
	Bisoi europarrarentzako interes bereziko eremua / Áreas de interés especial de Visión Europeo (<i>Mustela lutreola</i>)
	Muturluze piriniarrarentzako interes bereziko eremua / Áreas de interés especial del Desmán del Pirineo (<i>Galemys pyrenaicus</i>)
Naturgune babestuak / Espacios Naturales Protegidos	
	Biotopo babestuak / Biotopos Protegidos
	Zuhaitz apartekoak / Árboles singulares
	Batasunaren Intereseko Lekuak (BIL) edota parke naturalak / Lugares de Importancia Comunitaria (LIC) y/o Parques Naturales
	Hegaztientzako Babes Bereziko Eremuak (HBBE) / Zonas de Especial Interés para las Aves (ZEPA)
Hidrologia / Hidrología	
	Sare hidrografiko nagusia / Red hidrográfica principal
	Urtegi eta aintzirak / Embalses y lagunas
Ingurumen arriskuak / Riesgos Ambientales	
Uholde guneak / Manchas de Inundación	
	10 urteko birgertatze-aldia / Período de retorno 10 años
	100 urteko birgertatze-aldia / Período de retorno 100 años
Ingurumen zarata / Ruido Ambiental	
	Eguneko 65 dB(A) Isofona / Isófona 65 dB(A) período diurno
	Kutsatuta egon daitezkeen lurzorua / Suelos potencialmente contaminados



BEHIN BETIKO ONARPENA

D dokumentua: INGURUMEN IRAUNKORTASUNARI BURUZKO TXOSTENA
Ingurumen baldintzatzaileen planoak

- Aralar: 169/1995 Dekretua, apirilaren 26koa, Aralar ingurua parke natural deklaratu zuena.
- Pagoeta: 254/1998 Dekretua, Pagoeta ingurua parke natural deklaratu zuena.
- Batasunaren Intereseko Lekuak (BIL): Batzordearen erabakia, 2004ko abenduaren 7koa, Kontseiluaren 92/43/EEE Zuzentarauarekin bat Eskualde Biogeografiko Atlantikoko Batasunaren Intereseko Lekuen zerrenda onartu zuena.
- Hegaztien Babes Bereziko Eremuak (HBBE): Txingudi (ES0000243 kodea), basa hegaztien kontserbazioari buruzko 79/409/EEE Zuzentaraua, 1979ko apirilaren 2koa, aplikaturik 2000ko azaroan izendatua. Egun indarrean dagoen zuzentarauak, basa hegaztien kontserbazioari buruzko europar legebiltzarraren eta kontseiluaren azaroaren 30eko 2009/147/EE Zuzentarauak alegia, indargabetu egin zuen aurrekoa.
- Lur gaineko hidrologia: sare hidrografiko nagusia osatzen duten lur gaineko ur ibilguak, urtegiak eta aintzirak irudikatu dira.
- Ingurumen arriskuak: GBBLAPek proposatzen duen Bizikleta Bideen Oinarrizko Sarea baldintzatu dezaketen ingurumen arrisku nagusiak irudikatu dira, hala nola:
 - Uholde arriskua: 10 eta 100 urteko errepika-denborei dagozkien uholde-orbanak identifikatu dira, betiere Ur Agentziak –URAK- emandako informazioaren arabera.
 - Inguru zarata: irudikatu egin da Gipuzkoako Lurralde Historikoko bide ardatz nagusietako Zarata Mapa Estrategikoetan, Gipuzkoako Foru Aldundiak egin eta 362-C/2008 Aginduak, azaroaren 3koak, behin betiko onartuetan, eguneko epeari (Ld) dagokion 65 db(A)ko isofona. Sartu diren azpiegiturak honakoak dira:
 - A-8
 - N-1
 - N-634
 - N-638
 - GI-131
 - GI-627
 - GI-632
 - GI-2132
 - GI-3401
 - Kutsatuta egon daitezkeen lurak: irudikatu egin dira lurra kutsa dezaketen jarduerak dituzten edo izan dituzten kokaguneak, hain zuzen ere IHOBek prestatutako 'Lurzorua kutsa dezaketen jarduerak dituzten lekuen inbentarioa' dokumentua gaurkotzeko zirriborroan adierazten direnak, Oinarrizko Saretik 100 m baino gutxiagoko tartera daudenean.